



DIRU SARRERAK

➤ *Hasierako inbertsioetarako sarrerak:*

Kostu egituran kalkulatu dugun hasierako kostuen estimazioa 2.250€ dira gutxi gora behera, beraz, guk 5.000€ inbertituko ditugu.

Gure aurrizkietatik 2.500 € jarriko dirugu (625€ bakoitzak). Era berean, PAEM izeneko programatik beste 2.500€ emango digutenez hasierako inbertsioa estaliko dugu.

*PAEM (Programa de apoyo empresarial a las mujeres):

Emakumearen Institutuak eta Espainiako Merkataritza Ganberak sustatzen dute, Europako Gizarte Funtsarekin batera finantzatuta. Negozio-ideia edo -proiektu bat duten edo jada sortutako enpresa bat modernizatzeko eta handitzeko plan bat duten emakumeei enpresa-aholkularitza eta laguntza ematea du helburu.



➤ *Produktuen sarrera-iturriak hilerok:*

Produzitzen ditugun arropak ez dira kostu altukoak izango, *Low Cost* denda baita::

PRODUKTUA	SALDUTAKO KOPURUA(estimazioa)	PRODUKTUAREN PREZIOA	GUZTIRA
Prakak	70	22,99€	1609,30€
Kamisetak	80	16,97€	1357,60€
Jertseak	100	17,99€	1799€
Kirol-jertseak	40	20€	800€
Gonak	70	16€	1120€
Txapelak	50	12€	600€
Galtzerdiak	30	6€	180€
GUZTIRA			5666,90€



Hileroko kostuak 1.850€ direla estimatu dugunez kostu egituretan, eta hileko diru sarrerek ~~5666,90€-takoak~~ estimatzen dugunez, hasiera batetik proiektu bideragarria dela ondorioztatu dezakegu, **3816,90€** -ko irabaziak lortuko baititugu hilabetero.

Honek segurtasun bat ematen digu, hilabeteren batean aurreikusitako salmentak lortu ez balira, hutsune hori nolabait konpentsatzeko erresarbak izango genituzke.